

Usurbilgo Udala

2020KO URTARRILAREN 29AN EGINDAKO EZOHIKO UDALBATZAREN BILKURAKO AKTA

BERTARATUAK

Alkate-Lehendakaria

Agurtzane Solaberrieta Mesa

Zinegotziak

Beñat Larrañaga Urdanpilleta
Lur Etxeberria Gurrutxaga
Joxe Mari Iribar Zampirain
Aroa Etxeburua Ugartemendia
Luken Arkarazo Silva
Oskar Santamaria Pikabea
Itziar Basterrika Unanue
Josune Urkola Larrarte
Mirari Azurmendi Sorazu
Carlos Pérez Fraisoli
Andoni Atxega San Sebastian
Francisco José (Patxi) Suárez Pérez

Idazkaria: Irantzu Arrizabalaga Gainza.

Kontuhartzailea: Xabier Olano Jauregi.

Arratsaldeko 18:00etan batzarrari hasiera eman zaio.

Usurbilen, 2020ko urtarrilaren 29an arratsaldeko 18:00etan, Udaletxeko Pleno Aretoan, Usurbilgo Udaleko ezohiko Udalbatza Plenoa egiteko goian adierazten direnak lehen deialdian bildu dira.

Bertaratuak bezala goian agertzen diren zinegotziak batzarkide direlarik, Agurtzane Solaberrieta Mesa izan da Batzarburua.


1.- AURREKO BILKURETAKO AKTEN ONESPENA:

* 2019/11/28KO BILKURA AKTA.

Batzarkideek, 2019ko azaroaren 28ko bilkurako akta aho batez onartu dute.

* 2019/12/19KO BILKURAKO AKTA.

Batzarkideek, 2019ko abenduaren 19ko bilkurako akta aho batez onartu dute.



Usurbilgo Udala

2.- ALKATETZAKO DEKRETU HAUEN BERRI EMATEA: 2019KO ABENDUAREN 16TIK 2020KO URTARRILAREN 17RA (2019/1062-2020/0028).

Alkatetzak 2019ko abenduaren 16tik 2020ko urtarrilaren 17ra bitartean (2019/1062-2020/0028) egindako dekretuen berri eman zaie bertaratutakoei.

Zinegotziak jakinaren gainean geratu dira.

3.- 2019 AURREKONTUA BETETZEARI BURUZKO FINANTZA ETA AURREKONTU INFORMAZIOAREN BERRI EMATEA.

Xabier Olano kontuhartzaileak azalpenak eman ditu. 2019 urte naturala abenduaren 31n amaitu zela eta ondorengo hiru hilabetetan, martxoaren 31 bitartean, likidazio lanetan ari direla jakinarazi du, beraz, gaur emango dituzten datuak aurrerapena direla zehaztu du.

Informazio hau plenora bi arrazoiengatik ekarri dutela esan du. Batetik, Foru Aldundiak berak eskatzen dielako hiruhilabete bakoitza bukatu eta hurrengo hilabetean informazioa bidaltzea; hori horrela informazio hau Foru Aldundira urtarrilaren 21ean bidali dutela aipatu du. Bestetik, Usurbilgo Aurrekontuaren Exekuziorako Arauak esaten duelako hiruhilabetean behin plenoari aurrekontuaren exekuzioa nola doan informazioa emango zaiola. Bi arrazoiak kontutan hartuta egokia iruditu zaiela esan du plenoari informazioa ematea, nahiz eta jakin ez dela behin betikoa eta oraindik aldaketa txiki batzuk egingo direla martxoaren azkenera bitartean.


Zinegotziei banatu zaien informazioa eskuartean dutela, kontuhartzaileak esan du lehenengo koloretako orrian ikusten dela bai gastuetan bai sarreretan kapitulu bakoitza ze portzentaietan exekutatu den. Lehen aipatu duen bezala hemen aldaketa txiki batzuk izango direla esan du baina ez handiegirik.

Jarraian, txostenean jasotzen dena azaldu du, noraino gauzatu den gastuen aurrekontua, noraino bururu diren obligazio onartuak, noraino gauzatu den sarreren aurrekontua eta noraino burutu diren eskubide onartuak. Oro har esan daitekeela dio exekuzioa aurreko urtekoa baino txukunagoa dela.

Kontuhartzaileak jarraitu du esanez udalen kudeaketa ekonomikoa nahiko arautua dagoela hiru arau berezirekin.

Batetik, aurrekontuaren egonkortasunari buruzko legea bete behar duela zehaztu du. Lege horrek esaten duela dio sarrera arruntek gastuak baino gehiago izan behar dutela. Udal honen kasuan arau hori betetzen dela nabarmendu du.

Bigarren araua zor biziarena dela esan du, kasu honetan legeak esaten duela dio edozein administrazio publikoren zorra ezin dela izan bere sarrera korrienteen %72 baino gehiago. Usurbilgo Udalaren kasuan zor hori gaur %17an egongo litzatekeela azpimarratu du, beraz, arau hau ere betetzen dela esan du.



Usurbilgo Udala

Hirugarren araua gastu arauarena izaten dela esan du, eta honek dio administrazio batek, nahiz eta diru sarrerak eduki, ezin duela bere gastua gehitu berak nahi duen adina, hau da, gastuak mugatua izan behar duela. Gastuaren muga izaten dela esan du aurreko urtekoa gehi Estatuak jartzen duen gehikuntza bat Barne Produktu Gordinaren igoeraren arabera. Kasu honetan udal honek gaintitu egiten duela esan du, baina arau honek baduela salbuespen txiki bat adierazi du, hau da, gastu horren zati bat aurreko urteko diruzaintza gerakinarekin finantzatua izan bada. Usurbilgo Udalak berez muga 538.000 eurotan gaintitzen duela dio, baina erabili den diruzaintza gerakina handiagoa dela azpimarratu du, 587.000 euro. Honek esan nahi duena da ez dela gaintitzen baina muga-mugan dabiltzala adierazi du. Hala ere, kontuhartzaileak gaineratu du bere ustez udal batentzat hobe dela muga-mugan ibiltzea, zeren ez bazara mugara iristen hurrengo urteetako gastu ahalmena automugatu egiten duzula.

Beraz, ondorioztatu du datorren urtean udal honek gastu ahalmen handiagoa izango duela.

Bestalde, kontuhartzaileak aipatu du Usurbilgo Udalak 2017an Plan ekonomiko finantzario bat onartu zuela bi urteko iraupena izan duena eta hori 2019ko abenduaren 31n amaitu dela, plana bete dela, beraz, orain ez dutela plan berririk egin beharrik izango gaineratu du. Baina bai plenoari komunikazio bat esanez gastu araua salbuespen batekin gaintitzen dutela, hau da, diruzaintza gerakina erabiliz gaintitzen dutela.

Josune Urkolak esan du txostenaren 2. orrialdean inbertsio errealetan faseak aipatu dituela kontuhartzaileak eta galdetu dio O fasean %31 zer den, ordaindu direnak ote diren.

Kontuhartzaileak erantzun dio O onartu den obligazioa dela. A, D eta O berez gaztelerazko hitzak direla, A da *autorización del gasto*, D da *disposición del gasto* edo adjudikazioa eta O da *obligación emitida*. Hemen obligazio bat onartzen denetik ordaintzera oso denbora gutxi pasatzen dela esan du, ez dela astebetara iristen zehaztu du.

Edozein zalantza izango balute, hurbiltzeko eta argituko diela jakinarazi die.

Batzarkideei 2019 Aurrekontua betetzeari buruzko finantza eta aurrekontu informazioaren berri eman zaie eta hauek jakinaren gainean geratu dira.

4.- JANP JAUNAREN AURKAKO ZIGOR ESPEDIENTEA, BERE ZAKURRAREKIN EMAN DIREN GERTAKIZUNENGATIK.



Usurbilgo Udala

Lur Etxeberriak azaldu du gai hau batzordetik pasa zutela eta jarraian irizpenean jasotzen den moduan, kasu honen nondik norakoak zerrendatu ditu. Ondoren, irizpenean proposatzen dena azaldu du.

Batzarkideek, Zerbitzuak batzordearen irizpena aztertu dute eta aho batez onartu dute, honela dio:

“Esp. zk.: HZ.08/2019-0345

JANP jaunaren aurkako zigor-jardunbidea animaliak edukitzea eta babestea arautzen duen Udal Ordenantzaren xedapenen urraketagatik irekitako espediente zigortzailea aztertu ondoren, eta espedienteaz izapidetzen duen instruktoreak egindako ebazpen proposamena kontuan harturik, honako proposamena egiten dio Udalbatza plenoari:

IKUSIRIK

2019ko urriaren 2ko zinegotzi delegatuaren 2019/0828 dekretu bidez JANP jaunaren aurkako HZ.08/2019-0345 zigor-jardunbideari hasiera eman zitzaion.

2019ko urriaren 8an jakinarazi zitzaion JANP jaunari zigor espedientearen hasiera, 15 eguneko epea emanez jardunbidearen izapidegilea urriaren 1eko 40/2015 Legearen 23. eta 24. artikuluetan ezarritakoaren arabera errefusatzeko, edota ongi irizitako alegazioak, dokumentuak edota informazioak aurkez zitzaion. Era berean, frogaldia irekitzeko eskabidea egiteko eta egoki ikusitako frogabideak proposatzeko.

Emandako epea amaituta, JANP jaunak ez zuen alegaziorik aurkeztu, ez eta frogaldia irekitzeko eskatu.

Urriaren 1eko Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 legeak honako hau jasotzen du bere 85. artikuluan:

*Zehapen-prozedura bat hasitakoan, arau-hausleak bere erantzukizuna aitortzen badu, **dagokion zehapena ezarriz ebatzi ahal izango da prozedura.***

(...)

Zehapena diruzkoa soilik denean, prozedura ebazteko eskumena duen organoak murriztapenak aplikatuko ditu, gutxienez % 20koak, proposatutako zehapenaren gainean, (...). Haietaz baliatzeko, bestalde, zehapenaren aurka administrazio-bidean jarritako akzio edo errekurtsioetan atzera edo uko egin beharra dago.

KONTUAN HARTURIK

Animaliak edukitzea eta babestea arautzen duen Udal Ordenantzako (GAO 2011-05-09) 6. artikulua xedatutakoaren arabera, *Kode Zibilaren 1905. artikuluan ezarritakoaren arabera, animalia-aren edukitzea izango da animaliak sortu ditzaion kalte, galera eta arazoaren erantzulea.*



Usurbilgo Udala

Aurreko xedapenak aintzat harturik eta espedientean aurkitzen den dokumentazioa eta frogak ikusi ondoren, burututako egintza arau-urratze **larria** dela, Animaliak edukitzea eta babestea arautzen duen Udal Ordenantza (GAO 2011-05-09) 29.2.g) artikulua arabera (*kalteak eragin ditzaketen animaliak zaindu eta babesteko beharrezko eginbidea ez izatea.*)

Instruktore honen ustez, **frogatuta** geratu dela aipatutako **arau-urratzea eta erantzulea**. Usurbilgo udaleko udaltzainburuaren 2019ko ekainaren 17ko salaketa-txostenean deskribatu eta zehaztu zen gertaera, eta espedientean jaso dira animaliak eragindako kalteak deskribatzen dituen albaiteroaren txostena.

JANP jaunak ez du alegaziorik aurkeztu. Hirugarrenek esandakoak udaltzainburuaren txostenak jasotzen ditu, eta horri lotutako dokumentazioa esan bezala espedientean jaso da.

Udaltzain kideen funtzio eta eginbeharrak 2017ko urriaren 6an emandako idazkariaren txostenean zehaztu ziren, eta agintaritzaren izaeraren aitortza azpimarratu. Horren arabera, bere salaketa frogaren nahikoa dela ondorioztatzen da salatutako pertsonaren errugabetasun-presuntzioa indargabetzeko. Agintaritzaren Agente izaera duten funtzionarioek adierazitako gertakariari Legeak frogaren balioa esleitzen diela (39/2015 Legeko 77.5 artikulua). Udaltzainburuaren txostena administrazio-espedientean sartuta dagoela eta honek frogaren gisa balio du. Agintaritzaren Agenteari Legeak nahiko indar esleitzen dio salatutako gertakariak ziurtatzeko eta ondorioz isuna jartzeko ekintza zuzenbidezkotzat hartzen da. Ahalmen edo botere honek kontrako frogaren onartzen du noski. Interesatuak aurkeztutako alegazioetan baina ez da aurkatze hori sostengatzen, kalteak eragin ditzaketen animaliak zaindu eta babesteko beharrezko eginbidea ez izateari dagokion arau-haustea ukatzen badu ere.

Animaliak edukitzea eta babestea arautzen duen Udal Ordenantzaren (GAO 2011-05-09) 30.1.b) artikulua, arau-urratze larrientzat ezar daitezkeen **zehapenak** zehazten dituela:

30. artikulua. Zehapenak.

1. Animaliak babesteko urriaren 29ko 6/1993 Legearen arabera, animaliak babesteari buruzko arau-haustek honako zenbateko hauek dagozkien isunekin zehatuko dira:

(...)

b) Arau-hauste larrietarako isuna: 300,52 €-tik 1.502,53 €-ra.

(...)

Animaliak edukitzea eta babestea arautzen duen Udal Ordenantzaren (GAO 2011-05-09) 32. artikulua 1 atalak berriz **zehapenak ezartzeko mailaketa** zehazten dituela:



Usurbilgo Udala

1. Isunen zenbatekoa mailakatzeko eta aurreko artikuluko 3. idatz-zatian aurreikusitako zehapenen iraupena zehazteko, honako inguruabar hauek kontuan izango dira:

- a) Egindako arau-haustearen transzendentzia soziala eta sanitarioa, eta eragindako kaltea.
- b) Legez kanpoko irabazi-asmoa agerikoa izatea eta arauhaustetik irabazitakoaren zenbatekoa.
- c) Arauak hausten segitzea. Zehapen-espeditentea abiarazi aurreko bost urteko epean Ordenantza honetan aurreikusitako arau-hausteren bat administrazio bidezko ebazpen irmoz zehapena ezarri bada, arauak hausten segitu dela ulertuko da.
- d) Arau-haustearen gaitzespen-mailan eragin dezakeen beste edozein, bai aringarria bai astungarria. Horretarako, bereziki esanguratsua izango da animalien aurka erakutsitako bortxakeria haurren edota adimen-urrituen aurrean egin izana.

Bestalde, kontuan izan behar dira Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 legeak 85. Artikuluan jasotakoak; arau-hausleak bere erantzukizuna du, eta prozedura ebazteko eskumena duen organoak murriztapenak aplikatu beharko ditu, %20koak, proposatutako zehapenaren gainean, beti ere zehapenaren aurka administrazio-bidean jarritako akzio edo errekurtsioetan atzera edo uko egin beharko duelarik arau-hausleak.

Zerbitzuak eta Mantenua Batzordeak 2020ko urtarrilaren 15ean egindako bilkuran, Lur Etxeberria, Jose Mari Iribar, Carlos Perez eta Patxi Suarezen aldeko botoekin, egindako irizpena kontutan hartuta, Udalbatzarrak honako erabakia hartu du aho batez:

E R A B A K I A

LEHENDABIZI: JANP jaunak Animaliak edukitzea eta babestea arautzen duen Udal Ordenantzaren (GAO 2011-05-09) 29.2.g) artikuluan xedatutako arau-urratze **larria** burutu du, hau da, *Kalteak eragin ditzaketen animaliak zaindu eta babesteko beharrezko eginbidea ez izatea*, espeditentean aurkitzen den dokumentazio eta frogen baitan.

BIGARRENA: JANP jauna da arau-haustearen erantzulea, Animaliak edukitzea eta babestea arautzen duen Udal Ordenantzaren (GAO 2011-05-09) 6. artikuluan eta Euskal Autonomia Erkidegoko herri Administrazioen zigortzeko ahalmenari buruzko otsailaren 20ko 2/1998 Legeko 8. eta 9. artikuluetan xedatutakoarekin bat etorriaz.

HIRUGARRENA: JANP jaunari, burututako arau-hauste larria dela eta, Animaliak edukitzea eta babestea arautzen duen Udal Ordenantzaren (GAO 2011-05-09) 30.1.b) atalean aurreikusitako zehapena jartzea, hain zuzen ere, **300,52 euroko isuna** ezartzea (arau hauste larria bere maila baxuenean) ordenantza bereko 32. artikuluko 1. atalean xedatutako irizpideak eta espeditenteko dokumentazioa kontuan hartuta,



Usurbilgo Udala

betiere Euskal Autonomia Erkidegoko herri Administrazioen zigortzeko ahalmenari buruzko otsailaren 20ko 2/1998 Legeko 7. eta 14. artikuluetan xedatutakoarekin bat etorriaz.

LAUGARRENA: Zehapen horren gainean, 39/2015 legeak bere 85. artikuluan aurreikusitako %20ko murriztapena ezartzea; beraz, ordaindu beharreko **isuna 240,42 euro** izango dira, beti ere zehapenaren aurka administrazio-bidean jarritako akzio edo errekursoetan atzera edo uko egin beharko duelarik arau-hausleak.”

Bozketan egin denean, honako emaitza izan da:

Aldeko botoak: Agurtzane Solaberrieta Mesa, Beñat Larrañaga Urdanpilleta, Lur Etxeberria Gurrutxaga, Joxe Mari Iribar Zapirain, Aroa Etxeburua Ugartemendia, Luken Arkarazo Silva, Oskar Santamaria Pikabea, Itziar Basterrika Unanue, Josune Urkola Larrarte, Mirari Azurmendi Sorazu, Carlos Pérez Fraisoli, Andoni Atxega San Sebastian eta Francisco José (Patxi) Suárez Pérez.

Beraz, erabakia aho batez hartu da.

5.- ZUMARTE MUSIKA ESKOLA BIRGAITU ETA HANDITZEKO OBRETAN JASANDAKO KALTE-GALERENGATIK CONSTRUCCIONES MOYUA, SL ENPRESARI KALTE-ORDAINAK ESKATZEA.

Alkateak adierazi du Zumarteko bi gai hauek Hirigintza batzordetik diktaminatuta datozela eta bertan eman baldin bazituen ere azalpenak gaur hemen plenoan ere eman nahi dituela. Emango dituen azalpenak bi puntuei buruzkoak izango direla zehaztu du, nahiz eta gero puntu bakoitza bozkatu beharko duten.

Pleno honetan behin baino gehiagotan hitzeggin dutela Zumarteko gaiaz esan du alkateak eta behin baino gehiagotan esan dutela obra honekin hasieratik izan direla gora behera eta zailtasun handiak.

Jarraian, obra honek orain arte egin duen bidearen ildo nagusiak aipatu ditu, irizpenean jasotzen den moduan.

Plenoak obra egiteko epea luzatzeko erabakia hartu zuenean, Moyuak horren aurkako erreklamazioa aurkeztu zuela eta gainera kalte-ordainak eskatu zizkiola Udalari adierazi du. Alkateak azpimarratu du beraiek garbi dutela obra atzerapen honetan Udala ez dela erantzulea, ez behintzat ardura osoa duena. Atzerapen horretan Moyuaren jarrerak ere zeresana izan duela gaineratu du. Beraz, hau horrela Udalak ere Moyuari kalte-ordainen erreklamazio bat egin behar diola ulertzen dute.

Alkateak adierazi du gai-zerrendako 5. puntu hau dela hain justu ere Moyuari kalte-ordaina erreklamatzeko onartzea.



Usurbilgo Udala

Alkateak gaineratu du hau horrela egitea bi aldeen artean hitzartua dagoen zerbait dela; ondoren, pleno honetako seigarren puntuan jasotzen den akordiora iritsi ahal izateko.

Egin duen errepassoak azaltzen duela dio legealdi hasieran obra hau zein egoeretan hartu zuten, inpas egoera batean eta ataka zailean zegoela gaineratu du, bere ustez ia epaitegietarako bidean ere bai. Egoera ikusita, ataka horretatik ateratzeko bi bide ikusten zituzten, epaitegietako bidea hartzea edo negoziazioaren bidetik akordio bat lortzea. Azken bide hori hobetsita, Udalak aholkularitza juridiko bat kontratatu zuela adierazi du.

Alkateak aipatu du akordio horren helburua zela urte honetan sortu diren gorabehera guztiei amaiera ematea modu adostu batean. Jarraian, amaiera eman behar zitzairen hiru gaiak aipatu ditu: batetik, obra amaitzeko eguna zehaztea; bestetik, ikusten zuten atzerapenaren arrazoietan ez zirela inoiz ados jarriko eta ondorioz kalteordainak eskatzeko aukerari muzin egitea; eta, azkenik, obra unitate berriei dagokienez prezio itxi bat adostea.

Akordioaren helburua zein den bertako parrafo batek ondo adierazten duela adierazi du alkateak eta jarraian aipatutako parrafoa irakurri du, honela dio: *“El presente convenio tiene por objeto la terminación convencional de los procedimientos para resolver las diferencias derivadas del contrato de obra suscrito por CONSTRUCCIONES MOYUA y el AYUNTAMIENTO DE USURBIL para la rehabilitación y ampliación del edificio destinado a Zumarte Musika Eskola, en Usurbil.”*

Akordio guztietan bezala, alderdi bakoitzak bere konpromisoak hartu behar dituela esan du eta kasu honetan ere akordioan hauek zehaztuta daudela gaineratu du.

Amaitzeko, alkateak esan du ez dela gai erraza izan, obra hau egoera kritikoa hartu zutela, epaitegietako bidea alboratu egin zutela nagusiki ziurgabetasun egoera haunditu egiten zuelako eta interes orokorrari begira adostasuneko bideari eman diotela lehentasuna. Hala ere, azpimarratu du kezkatuta dagoela kontratistekin eta kontratistek jokatzeko duten moduarekin, gaineratu du ez direla leialak izan ez Usurbilgo herriarekin ez eta Usurbilgo Udalak esleitutako kontratuarekin. Are gehiago kezkatzen duela dio ikusita gainera jokatzeko modu hauek nahiko ohikoak direla, diru publikoaz ari direla esan du eta administrazio publikoarekin ezin dela nahieran ibili.

Mirari Azurmendik adierazi du beraien iritzia eman nahi dutela eta horretarako honako testua irakurri du:

“Zumarte Musika Eskolaren berrikuntzaren egitasmoa Usurbilgo EAJ-k azaldu zuen jada 2015 hauteskundeetako programan.

Urte horretako Hauteskundeak Bilduk irabazi ondoren, legealdirako aurkeztutako Udal Gobernu Planean 8. puntuan “ Zumarte musika eskola erabat birgaitu” jaso zuenean, Usurbilgo EAJ-ak ilusio handiaz jaso zuen adierazitako egitasmoa.



Usurbilgo Udala

2018ko ekainaren 26ean eginiko plenoan esleitu zen kontratua: 12 HILABETEKO EPEAREKIN lanak burutzeko.

2019ko maiatzaren 23an, ez ohiko plenoan Kontratua aldatzea onartu zen prezio kontradiktorioak onartuz. Udalbatza horretako aktak jasotzen duenez:

“... atzerapen batzuk sortu direla eta enpresak galdetzen duela dio horiekin zer. Alkateak jakinarazi du kontu hori erabaki honetatik kanpo geratzen dela eta aurrerago erabakiko dela.”

“Aurrerago erabakiko dela” egoera, indefinizio egoera hau, erabakirik hartu gabe 8 hilabete daramatzagu.

Egoera hau kudeaketa txarraren ondorioa dela eta onartezina iruditzen zaigu!

Gaur mahai honetara ekarri den hitzarmenak, epeak bermatzeko planteatzen duen irtenbidea penalizazio gogorrak ezartzea baino ez da. Ezarritako zigorrak kontratista erabat behartzen duenaren ustean, ziurtatutzat ematen da obra bukatuta egongo dela adostutako epe berrian. Behin egoera honetara iritsita, nolakoak izango dira ondorioak? Horrenbesteetan aitortutako langileen lan baldintzak, hemendik aurrera ez al dira ba garrantzitsuak? Oraingo honetan, beste lehentasun batzuk al daude aurretik?

Kudeaketa eredu hau EAJ-ak gaitzezen du, beraz gure botoa kontrakoa izango da.”


Alkateak penalizazio gogorraren kontu hori ez duela ulertu eta argitzea eskatu dio Mirariri. Langileen lan-baldintzak aipatu dituenean zertaz ari den galdetu du ze kontu hori Moyuari dagokiola uste du.

Mirari Azurmendik azaldu du bere ustez 10.000 euroko penalizazioa, penalizazio gogorra dela.

Alkateak erantzun dio bi aldeek adostutako penalizazioa dela hori.

Mirari Azurmendik galdetu omen zion alkateari ea teknikoki ikusten zen hori posible zela eta erantzun omen zitzaion “penalizazio hori medio dela hartuko zutela kontu beraiek obra bukatzeko”, honen aurrean Mirarik galdetu omen zuen “baina hori ze preziotan? Edozein modutara? Langileak edozein eratarara?” Kontratu honen lizitazioan jarri omen zen irizpide bezala langileen lan-baldintzak errespetatu behar zirela. Lortutako adostasunaren azpian objetibo bat burutzeko baldintza bat inposatu dela dio eta hor Udalaren ardura bat ere badagoela uste du.

Alkateak argitu du kontratuan noski erreparatzen zaiela lan-baldintzei eta lan-hitzarmenari eta Moyuak hori bete egin beharko duela. Obra uztailaren 17an amaitu



Usurbilgo Udala

behar badute Udalak ez duela behartzen lan-baldintza kaxkarretan aritzera azpimarratu du, Moyuak langile gehiago bideratu beharko dituela dio lan-baldintza onetan aritzeko. Beraz, hemen inor ez dela ari planteatzen obra uztailaren 17an amaitzea langileen bizkar. Moyuari dagokiola esan du langileen lan-baldintzak errespetatzea eta obra honetara langile gehiago bideratzea, hain justu ere orain arte ez duena egin.

Kontrako bozka emateko argudio sendoagoak eskatu dizkie EAJkoei.

Mirari Azurmendik erantzun dio hemendik aurrera ikusiko dutela zer gertatzen den. Orain jakin dutela dio azken hilabete hauetan obra geldirik zegoela eta hemen ez zuela inork ezer esaten.

Alkateak gogorarazi du beraien lehen plenoan obra horri buruz galdetu zitzaizenean momentu horretan bertan Lur Etxeberria zinegotziak azalpenak eman zituela eta esan zitzaizela gauzak okertzen ari zirela. Gaineratu du Hirigintza batzorde ezberdinetan atera dela gai hau eta beraz ez dutela izan obra honen egoera zailaren berri duela astebete. Hemen daudenetik galdetu zaien bakoitzean eta baita galdetu gabe ere gai hau atera dutela azpimarratu du. Eta noski, akordioa beteko dela eta obra uztailaren 17an amaituko dela bermatzeko Udalak garantiak behar dituela esan du. Obra data horretan ez bada amaitzen eta ikusita gainera nondik eta zein egoeratik abiatzen diren, bi urteko atzerapena duen obra batetik eta bi aldean adostasunetik lortutako akordio batetik, Udalak ere bere bermeak dituela azpimarratu du, diru publikoaz ari baitira. Gaineratu du bere ustez hori berme bat dela eta ez penalizazio bat.


Mirari Azurmendik erantzun dio bere ustez hemen neurriak eta erabakiak duela zortzi hilabete hartu behar zirela eta ez orain.

Josune Urkolak adierazi du obra atzerapen egun bakoitzeko 10.000 euroko penalizazioari dagokionez, beraiek ez dutela esan hori gehiegi edo gutxiegi den.

Alkateak erantzun dio penalizazio gogorra deitu diotela, ez bermea, eta berarentzat kontzeptu oso diferenteak direla azpimarratu du.

Josune Urkolak adierazi du beraiek esan nahi zuten gauza bakarra dela uztailaren 17an obra horrek amaituta egon behar badu, bermatzen duten gauza bakarra dela eguneko 10.000 euroko ordainketa horrek.

Alkateak esan du uztailaren 17an obra hori ez badago amaituta, ikusi beharko dutela uztailaren 18an udalak ze bide hartzen duen. Agian, orain deskartatu duten epaitegietako bidea hartu beharko dute, hori ez dakiela dio, baina dakiena da



Usurbilgo Udala

akordioak jasotzen duen bezala uztailaren 17an obra hori ez badago amaituta Moyuak Usurbilgo herriari eguneko 10.000 euro ordaindu beharko dizkiola bere eginbeharrak ez betetzeagatik.

Mirari Azurmendik esan du datorren ikasturtean kurtsoa eraikuntza berrian hasten badira oso gustora jarriko direla, zeren helburua hori da.

Jose Mari Iribarrek hartu du hitza eta aipatu du Udal honek egiten dituen kontratazio guztietan lan-baldintzak bermatzen direla, bestalde, enpresei eskatzen zaiela ere hemengo konbenioak betetzea.

Itziar Basterrikak aipatu du bera astero biltzen dela Ongizate sailean eta atzo bertan bertatik ikusi zituela langile guztiak kaskorik gabe lanean. Enpresaburuaren egitekoa dela dio langile horiek kontrolatzea eta ez Udalaren egitekoa.

Batzarkideek, Hirigintza batzordearen irizpena aztertu dute eta gehiengoz onartu dute, honela dio:

“Espediente zkia: ID.05/2017-0483

AURREKARIAK

Usurbilgo Plenoak, 2018ko martxoaren 5ean egindako ezohiko bilkuran onartu zen Zumarte Musika Eskola birgaitu eta handitzeko obra kontratua esleitzeko prozedura irekia. Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta udal Kontratatzaile Profilean 2018ko martxoaren 8an iragarkia argitaratu zen.

Kontratua CONSTRUCCIONES MOYUA, SL. enpresarekin sinatu zen 2018ko ekainaren 28an, eta zuinketa akta aldiz 2018ko abuztuaren 2an. Esleipen prezioa 1.637.371,09 euro izan ziren (%21eko BEZ barne 1.981.219,02 euro).

Eraikuntza-proiektuaren konplexutasunaren ondorioz – Eraikin zahar bat birgaitzeko eta handitzeko esku-hartzea –, prozedurazko eta funtsezko gorabehera ugari gertatu dira kontratatutako obran zehar (kontratuaren aldaketak, prezio kontrajarriak ezartzea, epea luzatzea, eraikuntza-soluzioekiko alde teknikoak, etab.).

Usurbilgo Plenoak, 2019ko maiatzaren 23an, obra-kontratua aldatzeko akordioa hartu zuen, obra-unitate berrien ondorioz prezio kontrajarri berriekin.

2019ko uztailaren 23an berriz, Plenoak beste akordio bat hartu zuen, obra-unitate berrien ondorioz obrak egiteko epea luzatuz.

KALTE-ORDAINEN ESKAERA



Usurbilgo Udala

Orain berriz, CONSTRUCCIONES MOYUA, SL. enpresak, 2020ko urtarrilaren 10ean, idazki bat aurkeztu du prezio kontrajarriak onartzeko prozesuaren ondorioz lanak gauzatzean sortutako atzerapenek gainkostuak eragin dizkiotela adierazteaz gain, 477.299,08 €-ko –gehi dagokion BEZa– kalte-ordainak eskatuz.

UDALAREREN ERREKLAMAZIOA

Usurbilgo Udalak ere hasi du CONSTRUCCIONES MOYUA, SL. enpresaren aurkako kalteak erreklamatzeko espedientea, uste baita ez dituela bete kontratuzko betebeharrak lanak egiteko epeei dagokienez, eta obrak atzerapen handia izan duela eta kalte larriak eragin dizkiola Udalari. Era berean, Usurbilgo Udala ere ez dago ados CONSTRUCCIONES MOYUA, SL. enpresak ustez jasandako kalte-galeren kuantifikazioarekin.

Udal idazkariak, Irantzu Arrizabalaga Gainza andereak, gaia aztertu ostean, 2020ko urtarrilaren 19an, honako txostena eman du hitzez hitz:

INFORMAZIOA.- ERREKLAMAZIOA KONTRATISTARI, KONTRATUA GAUZATZEKO USURBILGO ZUMARTE MUSIKA ESKOLA BIRGAITZEKO ETA HANDITZEKO OBRETAN JASANDAKO KALTE-GALERENGATIK.

AURREKARIAK.-

LEHENENGOA.- 2018ko martxoaren 8an, Usurbilgo Udalak "Usurbilgo Zumarte Musika Eskola birgaitzeko eta handitzeko" obrak kontratatuzko lizitazioa argitaratu zuen. Obra-kontratu hori 2018ko ekainaren 26an esleitu zitzaion Construcciones Moyua S.L. enpresari, 1.981.219 euroko prezioan (BEZ barne).

BIGARRENA.- Eraikuntza-proiektuaren konplexutasunaren ondorioz – Eraikin zahar bat birgaitzeko eta handitzeko esku-hartzea –, prozedurazko eta funtsezko gorabehera ugari gertatu dira kontratatutako obran zehar (kontratuaren aldaketak, prezio kontrajarriak ezartzea, epea luzatzea, eraikuntza-soluzioekiko alde teknikoak, etab.).

HIRUGARRENA.- Kontrata exekutatu bitartean, Construcciones Moyua SLren errekurtoa jaso zuen Usurbilgo Udalak, eta, 2019ko maiatzaren 23ko osoko bilkuran hartutako erabakiaren bidez, fatxada finkatzeko lanen prezio kontraesankorra onartu zen.

LAUGARRENA.- Usurbilgo Udaltzarak, 2019ko uztailaren 23an, beste akordio bat hartu zuen obrak egiteko epea luzatzeko, obra-unitate berrien ondorioz.

BOSGARRENA.- Usurbilgo Udalak uste du Construcciones Moyua S.L.k ez dituela bete kontratuaren araberako betebeharrak lanak egiteko epeei dagokienez, eta obrak atzerapen handia izan duela eta kalte larriak eragin dizkiola Udalari.



Usurbilgo Udala

Hori guztia kontuan hartuta, Udal honek enpresa eraikitzaile horren aurkako KONTRATU-ERANTZUKIZUNEN ETA/EDO KONTRATUZ KANPOKO ERANTZUKIZUNEN ERREKLAMAZIOA aurkez dezake, kontratua gauzatzeko ardura falta izan zuela uste baitu.

ZUZENBIDEZKO OINARRIAK.-

I.-Erantzukizuna erreklamatzeko akzio honetarako legitimazio aktiboa eta pasiboa, auzibidera jo aurretik, Usurbilgo Udalari dagokio, hurrenez hurren, eragindako kalte-galerak jasan dituzten ondasunen titularrak delako, eta Construcciones Moyua, S.L.ri, kontratuaren erakunde kontratista delako.

II.-GAIAREN AZTERKETA.-

1.- APLIKATU BEHARREKO ARAUDIA.

Kontuan hartuta lanen esleipen-data, zehazki 2018ko ekainaren 26a, azaroaren 14ko 3/2011 Legegintzako Errege Dekretuak onartutako Sektore Publikoko Kontratuaren Legearen testu bategina ez zegoela indarrean, kontratua gauzatzeari edo aldatzeari dagokionez, eta Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legearen lehen xedapen iragankorrean ezarritakoaren arabera (aurrerantzean, SPKL 2017), SPKL 2017 Legeak arautu behar du, bi araubide desberdin ezartzen baititu:

- a) Kontratua prestatzeko eta esleitzeko hasierako fasea.
- b) Esleitutako kontratuaren ondoren, betetze, azkentze, aldaketa, luzapen eta abarren ondorengo fasea.

Hau da, kontratua prestatzeko eta esleitzeko faserako, espedientearen hasiera-data zenbatzen da. Udalaren eta enpresa kontratistaren arteko kontratazio-espediente honen lizitazioa 2018ko martxoaren 8an argitaratu zenez eta 2017ko SPKL berria 2018ko martxoaren 9an jarri zenez indarrean, esleipen-prozedura behar bezala izapidetu zen 2011ko SPKLTBren arabera.

Hala ere, kontratua 2018ko martxoaren 9aren ondoren esleitu zenez (zehazki, 2018ko ekainaren 26an), 2017ko SPKLren bidez arautu behar da: "Lege hau indarrean jarri aurretik esleitutako administrazio-kontratuak aurreko araudiaren arabera arautuko dira, ondorioei, betetzeari eta azkentzeari dagokienez, haien iraupena eta luzapen-araubidea barne". *Sensu contrario* arabera, geroago esleitutako administrazio-kontratoak SPKL berriaren arabera arautzen dira.

2.- KONTRATU-ERANTZUKIZUNARI DAGOKIONEZ.

Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legea kontuan hartuta, 192. artikulua eta hurrengoak, kontratuak gauzatzeari buruzkoak, Administrazioari eragindako kalteen eta hirugarrenei eragindako kalteen kalte-ordainak jasotzen dituzte. Hain zuzen ere, 194 Kalte-galerak eta zigorraren ezarpena garatzen ditu kontratistaren



Usurbilgo Udala

kargurako kontratua behar bezala betetzen ez den kasuetan, eta 194k baieztatzen du kontratistaren betebeharra izango dela kontratua exekutatzeko eskatzen dituen eragiketen ondorioz hirugarrenei eragiten zaizkien kalte eta galeren orotariko kalte-ordaina ematea. Azken horiek Administrazioari egotzi ahal izango zaizkio, soil-soilik, Administrazioaren agindu bati berehala eta zuzenean aurrea hartzen diotenean.

Ildo beretik, kontratua gauzatzean edo ez betetzean administrazioari eragindako kalte-galerei aurre egiteko betebeharra berariaz jasotzen da. Aipatutako lege-testuko 110.c) artikulua, kontratu-arloan ezarritako bermeari erantzuten dion kontzeptu gisa.

Bestalde, egiaztatutzat jotzen da Usurbilgo Udalari eragindako kalteen jatorria kontratua gauzatzeko behar ziren eragiketen atzerapena dela, eta atzerapena dela eta, kontratutik eratorritako erantzukizun bat dagoela.

2017ko SPKLren 195.2 artikulua honako hau ezartzen du: "Atzerapena **kontratistari egotzi ezin zaizkion** arrazoiengatik gertatu bada eta kontratistak, hasierako exekuzio-epea luzatzen bazaio, bere konpromisoak betetzea eskaintzen badu, kontratazio-organoak emango dio".

Eta Erregelamenduaren 98. artikulua honako hau ezartzen du: "Kontratazio-organoak, **kontratistari egotz dakizkiokeen** arrazoiengatik epeak betetzen ez baditu (...), zigorrak ezartzea erabakitzen badu, eta ez suntsiaraztea, epea luzatzea onartuko du".

Usurbilgo Udalak, Construcciones Moyua S.L. enpresak behin eta berriz kontratua gauzatzean izandako desadostasunen ondorioz, eta obra amaitzeko atzerapenaren ondorioz, beste lokal batzuk gaitu eta egokitu behar izan ditu behin-behinean, eta lokal horiek, udalaren jabetzakoak izan ez arren, errentan eman behar izan ditu. Ondorioz, udalerriko 350 haurrek baino gehiagok jasan behar izan dute egoera hori, hasieran ezarritakoa baino denbora luzeagoan, eta Zumarte Musika Eskolako ikasleen musika-prestakuntzan eragin zuzena izan du.


Horregatik guztiatik, esan daiteke horren guztiaren ondorioa dela Construcciones Moyua S.L. enpresak Usurbilgo Udalari sortutako kalteen erantzukizuna eman behar diola.

3.- KALTE-GALERENGATIKO ERREKLAMAZIOA.

Kontratuko betebeharrak ez betetzea lanak egiteko epeei dagokienez, obrak atzerapen handia eraginez eta Usurbilgo Udalari kalte larriak eraginez.

Horregatik guztiatik, eskatzen da txosten hau aurkeztutzat jotzea, eta onartzea egokia dela Usurbilgo ZUMARTE Musika Eskola birgaitzeko eta handitzeko obra-kontratuan aurkeztutako erreklamazioaren zenbatekoa (471.465,38 €, gehi dagokion BEZa).

Usurbil, 2020ko urtarrilaren 19a



Usurbilgo Udala

Idazkaria. Irantzu Arrizabalaga Gainza

Guzti hau kontutan izanik, Hirigintza Batzordeak, 2020ko urtarrilaren 21ean egindako bilkuran, Agurtzane Solaberrieta, Lur Etxeberria eta Patxi Suárezen aldeko botoekin eta, Mirari Azurmendi abstentzioarekin, egindako irizpena kontutan hartuta, Udalbatzarrak honako erabakia hartu du gehiengoz:

E R A B A K I A

LEHENA: Zumarte Musika Eskola birgaitu eta handitzeko obrako kontratuan ezarritako epeak ez betetzeagatik eragindako kalte larrien ordainetan, 471.465,38 €-ko –gehi dagokion BEZa– kalte-ordaina erreklamatzeari CONSTRUCCIONES MOYUA, SL. enpresari.

BIGARRENA: Erabaki honen berri CONSTRUCCIONES MOYUA, SL. Enpreari ematea.”

Bozketan egin denean, honako emaitza izan da:

Aldeko botoak: Agurtzane Solaberrieta Mesa, Beñat Larrañaga Urdanpilleta, Lur Etxeberria Gurrutxaga, Joxe Mari Iribar Zapirain, Aroa Etxeburua Ugartemendia, Luken Arkarazo Silva, Oskar Santamaria Pikabea, Itziar Basterrika Unanue eta Francisco José (Patxi) Suárez Pérez.

Aurkako botoak: Josune Urkola Larrarte, Mirari Azurmendi Sorazu, Carlos Pérez Fraisoli eta Andoni Atxega San Sebastian.

Beraz, erabakia gehiengoz hartu da.

6.- ZUMARTE MUSIKA ESKOLA BIRGAITU ETA HANDITZEKO SINATUTAKO OBRA-KONTRATUTIK ERATORRITAKO ALDEAK ITUN BIDEZ KONPONTZEKO HITZARMEN TRANSAKZIONALA ONARTZEA.

Batzarkideek, Hirigintza batzordearen irizpena aztertu dute eta gehiengoz onartu dute, honela dio:

“Espediente zkia: ID.05/2017-0483

AURREKARIAK

Usurbilgo Plenoak, 2018ko martxoaren 5ean egindako ezohiko bilkuran onartu zen Zumarte Musika Eskola birgaitu eta handitzeko obra kontratua esleitzeko prozedura irekia. Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta udal Kontratatzaileraren Profileren 2018ko martxoaren 8an iragarkia argitaratu zen.



Usurbilgo Udala

Kontratua CONSTRUCCIONES MOYUA, SL. enpresarekin sinatu zen 2018ko ekainaren 28an, eta zuinketa akta aldiz 2018ko abuztuaren 2an. Esleipen prezioa 1.637.371,09 euro izan ziren (%21eko BEZ barne 1.981.219,02 euro).

Eraikuntza-proiektuaren konplexutasunaren ondorioz – Eraikin zahar bat birgaitzeko eta handitzeko esku-hartzea –, prozedurazko eta funtsezko gorabehera ugari gertatu dira kontratatutako obran zehar (kontratuaren aldaketak, prezio kontrajarriak ezartzea, epea luzatzea, eraikuntza-soluzioekiko alde teknikoak, etab.).

Usurbilgo Plenoak, 2019ko maiatzaren 23an, obra-kontratua aldatzeko akordioa hartu zuen, obra-unitate berrien ondorioz prezio kontrajarri berriekin.

